

NEKAZARITZA BARAKALDON

A pesar del carácter e imagen tan aplastantemente urbano de Barakaldo algo de agricultura pervive en el municipio. No por eso, no obstante, deja de ser, de alguna manera, residual. Casi el 30% de la superficie total del municipio es improductivo para fines agro-forestales, ya que lo constituyen cuerpos de agua, zonas edificadas o de roquedos y marismas. Por otro lado, algo más del 30% de la superficie del municipio se clasifica como forestal. Así, lo que se define como Superficie Agraria Util (SAU), o sea lo que es para usos ganaderos y agrícolas (tierras labradas y pastos permanentes) suponen únicamente el 30% de la superficie, a la vez que hay otro 10% que lo supone matorrales que bien pueden ser de uso para el ganado de monte o bien terminará siendo forestal.

Barakaldoko nekazaritzaren oinarriko estatistika

Barakaldoren izaera eta irudia erabat hiritarrak izan arren, oraindik udalerrian nekazaritza apur batek bizirik dirau. Hala ere, nolabait hondarrekoa da. 1. koadroan ikusten da udalerrian guztirako gainazalaren ia %30 ez dela produktiboa nekazaritza eta baso xedeetarako, ur gorputzak, eremu eraikiak edo harkaitz tegi eta padurak baitira. Bestalde, udalerriko gainazalaren %30 baino gehixeago basokotzat jotzen da. Hartara, Nekazaritzarako Gainazal Erabilgarria esaten zaiona (SAU), alegia, nekazaritza eta abere hazkuntzako erabilpenetarako dena (lur landuak eta larre iraunkorrak) gainazalaren %30 baino ez dira, eta beste %10 sastrakak dira, mendiko ganadurako erabil daitekeena edo azkenean baso bihurtuko dena.

1. koadroak bi informazio iturri desberdinen datuak ematen ditu, batetik www.nekanet.net web orrialdearenak eta bestetik azkeneko baso eroldarenak (1999ko behin behineko datuak). Nabarmentzen den lehenengo gauza da estatistika beti ez datorrela bat, lehenengo alorreko estatistikari dagokionean tamalez gertatu ohi den bezala. Dena dela, interesatzen zaiguna neurri orokorrak dira, eta hauxe ondoriozta daiteke:

- Barakaldon landutako lurra oso gutxi da (El Regato funtsezko puntua da honetan), eta produktu desberdinak ateratzen dira: artoa, txakolina, barazkiak, fruta, loreak...
- oso urriak dira esne behien azienden ustiapenak, ardi, okeletarako behi, zaldi eta ahuntzen azienden ustiapenak, larre garai zabarrenak gehiago ala gutxiago aprobetxatu ahal dituztenak.
- erle, txerri, untxi eta hegazti produkzioen adibi-deak daude, baina ez dira oso garrantzitsuak. Izan ere, atal horietako produkzioaren zati bat autokontsumorako izango da.

- Baso alorrean, koniferak eta eukaliptoak dira nagusi, argi eta garbi (zuhaitzen gainazalaren %66), eta hazkunde geldoko edo galeriako hostotsuak, kasu askotan oso lote txikitik sakabaturatuta daudenak.
- Nekazaritza eta abere hazkuntzako ustiapentan, %73k lurra berena dute, erabiltzen duten gainazalaren %85. Barakaldoko guztirako gainazalaren %13.89 publikoa da, eta gehiena sastrakak, larreak eta basoak dira.
- Barakaldon 283 pertsona daude soldata nekazaritzatik ateratzen duten langileen erroldan, nahiz eta osorik zein zati batean egiten diren lanaldien estatistiketatik asko "mistoak" direla, hau da, alorretik kanpoko beste lanik ere badutela ondorioztatzen den. Edonola ere, biztanleria aktibo guztiarengan nekazaritza lanak duen pisa oso txikia da (ez da %1era ere heltzen) eta, hala ere, esan behar da "nekazaritzako lanaren" definizioa hain dela anbigua non Barakaldon, ziurrenik, alorreko langileen artean oso azienda edo jarduera txikia duten zenbait pertsona agertzen baitira.

Barakaldoko nekazaritzaren gaineko presioak

Barakaldok une hauetan ezaugarritzen duen nekazaritza izan dezan arrazoiak ugariak dira, elkar lotuta daude eta benetan konplexuak dira. Atal honetan batzuek laburbiltzen dira:

Nekazaritzarako lurrik eza

Barakaldon nekazaritzak duen hondar izaera, nagusiki eta argi eta garbi alor horretarako erabiltzeko moduko lurra pixkana galtzearen eta nekazaritzarako lur berria lortu ezinaren mende dago, bai fisikoki lurrik ez dagoelako bai hiriko eta espekulazioko prezioek nekazaritzarako edozein erosketa edo alokairu eragozten dutelako. Horrek bi ondorio nagusi dauzka:

1. koadroa. **Barakaldoko nekazaritzaren gaineko zenbait datu**

a) Udalerrriaren guztirako gainazalaren erabilpenen banaketa (ha)

| | Gainazala | guztirako % | % publikoa |
|------------------------|--------------|-------------|--------------|
| Ura | 52 | 2.0 | 0.00 |
| Hiria | 696 | 27.1 | 0.00 |
| Harkaitz eta padurak | 14 | 0.5 | 37.34 |
| Zelaiak | 268 | 10.4 | 2.40 |
| Larreak | 77 | 3.0 | 40.75 |
| Sastrakak | 564 | 22.0 | 33 |
| Zuhaitz basoak | 811 | 31.6 | 13.37 |
| Laborantza intentsiboa | 85 | 3.3 | 0.16 |
| GUZTIRA | 2.568 | | 13.98 |

(Baso inbentarioa, 1999ko behin behineko datuak)

b) Baso espezieen banaketa (ha)

| | Gainazala | guztirako % | % publikoa |
|------------------------|------------|-------------|--------------|
| Pinus nigra | 1 | 0.1 | 0.00 |
| <i>Pinus pinaster</i> | 72 | 8.9 | 3.00 |
| <i>Pinus radiata</i> | 146 | 18.0 | 23.80 |
| <i>Eucalyptus spp.</i> | 318 | 39.2 | 15.23 |
| <i>Quercus ilex</i> | 34 | 4.2 | 19.22 |
| Baso atlantikoa | 240 | 29.6 | 6.92 |
| GUZTIRA | 811 | | 13.37 |

(Baso inbentarioa, 1999ko behin behineko datuak)

(c) Barakaldon erroldatutako nekazaritza ustiapenen ezaugarriak

| | Kopurua | Ha. | Buru kopurua guztira |
|------------------------------|---------|-------|----------------------|
| Ustiapenak guztira | 222 | 1.579 | |
| Aziendadun ustiapenak | 77 | 536 | |
| * behiak | 63 | | 1.124 |
| * ardiak | 13 | | 666 |
| * ahuntzak | 15 | | 196 |
| * txerriak | 9 | | 83 |
| * zaldiak | 42 | | 145 |
| * untxi amak | 16 | | 96 |
| * hegaztiak | 71 | | 1.000 |
| * erlauntzak | 2 | | 40 unitate |
| Aziendarik gabeko ustiapenak | 145 | 1.043 | |
| Landatutako lurra | 180 | 31 | |
| * belarra | 150 | 21 | |
| * fruta arbolak | 151 | 9 | |
| * mahastiak | 32 | 1 | |
| Larre iraunkorrak | 177 | 770 | |
| Bestelako lurrik | 191 | 778 | |
| SAU | 212 | 801 | |
| Jabetza partikularra | 164 | 1.347 | |
| Alokairua | 32 | 155 | |
| Titularitatea: | | | |
| * pertsona fisikoa | 220 | | |
| * merkataritza baltzua | 2 | | |

(www.nekanet.net)

- nekazaritza ustiapenen eta lanpostuen galera garbi etengabea
- oraindik mantentzen diren ustiapenek erabilgarri duten gainazalaren galera, produkzioaren areagotzearen arazoak sortuz (begiratu 3. atalean, ingurumeneko inplikazioetarako), edo bideragarritasun ekonomikorik eza.

Arazo hauek okertu egiten dira nekazaritzakoak ez diren eta urbanizatu gabe dauden lurak azpiegiturazko edo hiriko erabilpen bihurtzen direnean, zeren beren egoera ez-hiritarrean nekazaritza eta abere hazkuntzako lurren gaineko presioak arintzen laguntzen baitute, bai hiritarrentzako gozamen eremu gisa, bai basa faunako elementuen aterpe gisa. Halako espazioak arian-arian ezabatzeak nekazaritza eta abere hazkuntzako lurretan sentitzen den presioa gehitzen du, ustiapenen lana eta bideragarritasuna zailduz. Zuloko-lbarretaren kasuak ildo horretako eztabaida egitea merezi du. Bere hezegune izaera erabat berreskuratuta, eta aldi berean ingurumeneko gozamen eta hezkuntzarako elementuak kontu handiz sartuta, gozamenaren eta habitat naturalaren bizikidetasunerako eremu alternatibo ere izan zitekeen, beste eremu batzuen gaineko presioa gutxituz, baina abian dauden hirigintzako planek eraikitako beste eremu bat izatera eramango dute, nora ziurrenik jende ugari joango baita, baina ez espazio zabal "naturalekin" lotutako xedeetarako.

Europar Batasuneko nekazaritza politika

Europar Batasuneko Nekazaritza Politikak berak nekazaritza eta abere hazkuntzako ustiapen ugari desagerrarazi ditu. Hasteko, merkatu ekonomia nekazaritza sistemara aplikatzeak benetako arazoak sortzen ditu, zeren nekazaritza, lurrari eta bere baliabide naturalei lotuta, ez baita gai merkatuak esaten duen besteko produkzio hazkunde etengaberik emateko, eta azkenean baliabideak agortu eta inportazioen mende amaitzen du, eta horrek aldi berean bere bideragarritasun ekonomikoa kolokan jartzen du. Nekazaritza politikak arazo hau larriagotu du, daukaten lurraren arabera edo gizarte faktoreak kontuan izan barik mugarik gabeko produkzioari emandako laguntzekin. Badakigu iraganean herri laguntzen %80 nekazarien %20ren eskuetara joaten zirena. Gaur egun bi abiadako nekazaritza ezarri nahi da. Gehiena oso produkzio handikoa eta bestea, oso gutxiengo txikia, kalitatezkoa baina elite batentzat. Laguntzen zenbaterakoek eta baldintzek alorrean lanpostuak galarazten, produkzioaren areagotzeari oro har eragiten (begiratu behean prozesu honen ingurumeneko ondorio negatiboak), eta laguntzak gutxiren eskuetan bilarazten jarraitzen dute.

Kutsadura nekazaritzakoak ez diren jardueretatik

Zenbait eragile eta prozesu kutsatzailek Barakaldoko nekazaritza benetan kolokan jarri duten iraganean, eta oraindik ere horretan jarraitzen dute, bai produzitu ahal izatearen ikuspegitik bai produzitutako elikagaiaren kalitatearen ikuspegitik. Hona hemen gaur egungo eragile eta prozesu kutsatzaileen adibideak (iraganean ere izugarri eragin dutenak) eta geroa izan litezkeenak:

- garraioa, azpiegituren sare dentsoarengatik, bereziki errepideena
- industria eta bere hondakinak, lindanoa, esaterako
- etxebizitzak berogailuekin (fuel-oliozkoak) eta zaborrak
- zaborrak errausteko egitasmoa, udalerritik kanpo egon arren
- garraio elektrikorik tentsio altuko lineak
- eta abar.

Kutsatzaileak dioxinak dira (trafikoarenak, berogailuenak, etorkizuneko erraustegikoak), lindanoa bera eta industriako hondakin gisa pilatutako beste substantzia batzuek, Sefanitro bezalako industriek isuritako gasak (sufre oxidoak, nitratoa eta karbonoa, SOx, NOx eta C eta beren aldagaiak), metal astunak (nikela, beruna, merkurioa, zinka...), erraustegiak isuriko lituzkeenak edo industria desberdinek isuri dituztenak, industriek eta ibilgailuek isuritako partikula solidoak... Gainera, kutsatzaile horietako bi edo gehiagoren sinergiako eraginen arazoak sortzen dira, eta horren gainean oso gutxi dakigu.

Horrek nekazaritzan sortzen duen arazo nagusia da produzitzen diren elikagaietan duten eragina da, asko eta asko ez bailirateke kontsumitu behar. Hona hemen bost adibide, dauden mordotik ateratakoak:

- Dioxinak batez ere animalia gantzetan pilatzen direlako (okela, esnea). Dioxinen izaera kaltegarriaren gaineko dokumentazioa oso ugaria da (Munduko Osasun Erakundeak minbizi eragiletzat sailkatzen ditu).
- Laboreen hostoetara itsasten diren partikula solidoak, jatea komeni ez den substantzia piloa gehituz.
- Tentsio altuko lineak, inguruan bazkatzen den ganaduaren jokabidean eta osasunean eragiten dutenak, magnetismoaren eta maila baxuko ozonoaren produkzioaren ondorioz.
- Zaborren erraustegiek tximinietatik bota ditzaketen 200 osagaitik gorako eraginak (dioxinez gain), baina elikagaietan duten eragina ondo do-

kumentatu gabe dago. Esaterako, bai ezagutzen da metal astunen izaera biopilagarria.

- Lindanoak izaki bizidunen ugalkortasunean eragina izatearen ahalbidea aztertzen jarraitzen dute, zehazki, gizakiaren espermatozoiden kopuruan izan dezakeen eragina ikertzen ari dira.

Historikoki nekazaria edo abeltzaina da kutsadura horietara doitu behar izan duena. Bada administrazioek animalia edo landare produkzioa kalitate eskasengatik edo jaki batzuetan esandako motetako hondakinak izateagatik debekatu duteneko kasuak. Zentzuzkoena alderantzizkoa izango zen. Kutsadura ezabatzea, hain zuzen.

Nekazaritzak berak Barakaldon dituen ingurumeneko eraginak

Nekazaritza, gizakiaren beste edozein jarduera bezala, oso lotuta dago ingurumenarekin, eta funtzio positibo batzuek eta erabat negatiboak diren beste batzuek izan ditzake. Oro har, zoritxarrez, nekazaritzaren ingurumeneko funtzio positiboak ingurunean eragin negatiboa duen nekazaritzaren egoerarekin kontrastatzean soilik antzeman ahal izan da. Funtzio positibo hauek galtzea eta, aldi berean, ingurumeneko eragin negatiboak agertzea, zenbait arrazoiren ondorio da, eragile nagusia areagotzea, abandonatzea eta ordezkatzeta bezalako prozesuak sustatzen ari den nekazaritzako politika bera dela azpimarratuz. Dokumentu honen 2. atalean esan direnak bezalako faktoreak ere tartean sartzen dira.

Ingurunearen alterazioa saihestezina da giza espeziearen iraupenerako. Nekazaritzako jarduera guztiek maila batean edo besteak garatzen direneko ekosistemak aldarazten dituzte, ondoko fenomenoetako bat edo gehiago eragiten dituzte-eta:

- Dauden baliabideen kopuru txikiaren aprobetxamendua
- Beste baliabide batzuek ezabatu edo baztertzea
- Aprobetxatutako gainazalaren geomorfologia eta mikroklima aldaraztea
- Ingurunean bigarren mailako azpiegiturak sartzea
- Sistemara produktu energetiko edota sintetikoak sartzea
- Produkzioaren ziklo naturaletan aldaketak egitea
- eta abar

Beraz, nekazaritzako jarduerak ingurumenean eragina izan dute hasiera-hasieratik, baliabide naturalak aukeratu eta erauzteagatik besterik ez bazen ere. Hala da Barakaldorako eta beste edozein udalerritako nekazaritzarako ere.

Hala ere, azpimarratu behar da nekazaritza, oreka naturalei dagokienean, ingurumena babestu eta hobetzeko aliatu onena izan daiteke, aldi berean, gizakientzako produktuen beharrak askiestea ere bermatuz. Dena eskala, intentsitate, egokitze eta kudeaketa moduen kontua da. Jarraian, nekazaritzaren ingurumenerako ahalmenezko funtzioak laburbiltzen dira eta, aldi berean, zergatik Barakaldon halakorik izatea gero eta zailagoa den ere argitzen da.

Lurraren kontserbazioa

Lurra nekazaritza eta abere hazkuntzarako prestatzeko tradiziozko teknikek ("bigunak"), lurraren kontserbazioa gehienera eramaten dute (beti, estaldura begetalik gabe utzi eta mugitzearen ondorioz, lurra gal daitekeelako mugaren barruan), bai haizearen bai euriaren higadura ekiditeko, bai lurraren garraioaren kasuetan arrastarako trazatuak gutxitzeagatik. Lur zati txikiak, terrazak, mekanizazio urria, lur mugimenduen arteko ziklo luzeak, eta abar, denak dira kontserbazio horretan laguntzen duten faktoreak. Barakaldon, landatutako alorrek maldadun guneeetara baztertuz joatean, higaduraren ahalbidea gehitu egiten da. Halaber, baso lan jakin batzuetan makineria astuna erabiltzeak (lurperatzeak, eta abar) eragin negatiboa dauka lurraren balizko kontserbazioan.

Paisaiaren aniztasuna mantentzea / gehitzea

Harrizko hormak, latsak, bideak, harkaitzen azaleztatzeak, zuhaixkak eta putzuak bezalako egiturazko elementuak mantentzen dituzten erabilpen desberdineko lur zati txiki-ertainei lotutako nekazaritzako paisaiak (zereala, larreak, basotxoak, landaketak, fruta arbolak), gizartearen preziatuenak dira, habitat aniztasun handia eskaintzen dutelako eta, aldi berean, fauna eta flora aniztasunerako funtsezkoak direlako. Paisaiaren modelatzearen intentsitatean gradiente garbia dago, eta kontuan izanik paisaia birjina mota zehatz batzuek, partzialki nekazaritza eta natura paisaia bihurtzeak paisaia aniztasuna gehitzea ere ekar lezake. Jakina, zenbat eta transformazioa uniformeagoa izan, hainbat eta aniztasun gehiago galdetzen da orokorrean. Halaber, nekazaritzak ingurunearekin duen lotura azpiegituren modernizazioaren mende dago, tokiko material naturalak erabiltzen dituzten tradiziozko sistemen ondoan nekazaritzaren paisaia egitura eta material exogenoen bidez aldatu denekoak daudelarik. Azkenik, esan behar da nekazaritzako paisaiaren elementu bakar bat, esaterako, zuhaitzak galtzeak oso eragin handia ekar dezakeela. Barakaldoko udalerrri ia osoaren paisaiaren urbanizazioak (bai

erakuntzengatik bai azpiegiturengatik) paisaiaren aniztasunak ia eskusiboki, eta egoera eskasean ere, El Regato bezalako tokietan irautea dakar.

Fauna eta floraren aniztasuna mantentzea / gehitzea

Ekosistema naturalak aldatzean, nekazaritzako jarduerak dagoen fauna eta floraren aniztasunean eragina izaten dute, zenbait espezieren atzerapena edo desagertzea ekarriz, edo oraindik zailak diren erlazioak eta beste batzuekin harmonizatu gabe daudenak (otsoa, esaterako). Hala ere, paisaian elementu natural asko, erabilpen desberdinak mantentzen dituzten, eta baita habitat berriak ere sortzen dituzten nekazaritzako sistemek fauna eta floraren aniztasuna mantentzeko eta, batzuetan, gehitzeko aukera eskaintzen dute, espezie batzuen hedapena ahalbidetuz, batzuek arrarotasunarengatik edo bitxitasunarengatik balio handikoak direnak gainera. Berriro ere, Barakaldo nagusiki hiritarra izateak eta, bestalde, bere baso landaketa asko espezie bakarrekoak izateak, oso eragin negatiboa dauka nekazaritzari begira fauna eta flora aniztasuna mantentzeko ahalbidean. Ez dago nahikoa espazio fisiko, besterik ez. Badira abere hazkuntzako jarduera jakin batzuei estu lotutako flora espezie batzuek, esaterako, orkidea batzuek, larre eta zelaietan ganadurako aprobetxamendurik (bazkaz jan edo segatuz) egon ezean izugarri gutxiko direnak. Badira landare intsektu jale batzuek mendiko eremuetan hezegune txikietan irauten dutenak. Baso-etako pistak, zorupeak, monolaborantzak ... denek dute eragina hezegune horien eta, ondorioz, berariazko flora horren desagertzean.

Aniztasun agro-genetikoa mantentzea

Tradiziozko nekazaritza funtsezkoa izan da, eta da, gure aniztasun genetikoa mantendu eta aberasteko. Hori ez da basa fauna eta floraren aniztasunaren mantentzearen eta gehitzearen ondorio logikoa soilik, zientzia eta naturazko balio izugarriko aberastasun agro-genetikoa sustatu duen landare eta animalia desberdinak hobetu, hautatu eta gurutzatzen nekazari eta abeltzainen belaunaldien trebetasun eta lan historiko handiaren ondorio ere bada. Aniztasuna garbi dago, eta paisaiaren eta kulturaren aniztasunarekin lotura estua dauka (agronomia, gastronomia, ohitura eta abarren ezagumena), eta horiek mantentzearen mende dago, beraz. Gero eta gutxiago dira beren hazia gordetzen duten nekazariak. Gero eta gutxiago dira nekazariak beraiek. Hazia gordetzen zeneko tradiziozko baserri bat galtzen denean, gure ondare agro-genetikoko elementuak galtzen dira. FAOk kalkulatu du 1900etik mundu mailan aberastasun ho-

rren %75 galdu dela. Barakaldon portzentaje hori handiagoa izango da, ziurrekin. Azkeneko hamarkadan agroaniztasunaren kutsadura iturri berria sartu da, genetikoki aldarazitako organismoak nahita zein nahigabe askatzearen ondorioz. Estatu Espainiarrean genetikoki aldarazitako landatzeko arto transgenikoaren bi aldagai soilik onetsita dauden arren, jada badaude sojaren eta artoaren beste aldagai batzuen produkzio ekologikoen kutsadura kasuak.

Sare hidrologikoaren egonkortasuna: uraren kalitatea

Tradiziozko nekazaritzan eskala handiko lur mugimendu gutxi dagoenez, edo maldetan, zein oso lur zati txikietan, terraiza edo mailak erabiliz arretazko lana egin behar denez, arrastako eta pilaketako jalkin gutxi sortzen da ibaien ubideetan. Gaur egun, euri gogorren ostean, urak kolore marroiz maiz ikusten dira (duela gutxira arte Barakaldorena zen Artibako aintzira, mendian gorago behar ez ziren baso teknika erabiltzearen ondorioz sortutako jaulkipen eta gainezkatzeen adibide garbia da). Halaber, ganadu karga baxuko azientak ez du husten zaila den zabor pilaketako prozesurik edo lurzoruek beraiek ongargisa xurga lezaketenen prozesurik sortzen. Oraingo ganadu azienta areagotzek Europar Batasunaren legedian dioen 170 kg/ha nitratotik gora sortzea esan nahi du, urak kutsatu eta eutrofizatuz. Bestalde, produktu kimiko gutxi, batzuetan bat ere ez, erabiltzen duen nekazaritzak (produkzio ekologikoa, Barakaldon halako zenbait ustiapen dago), ez du eragin negatiborik ur edangarriaren kalitatean, ez eta fauna eta flora multzoetan ere. Hala ere, gero eta produktu kimiko desberdin gehiago eta kantitate handiago erabiltzeko joera izan da, bai Barakaldon, bai nekazaritza jarduerako beste edozein udalerritan.

Sare hidrologikoaren egonkortasuna: fluxu hidrologikoaren erregulazioa

Landare estalduraren eta lats txiki, putzu eta gainerako ibai bideen mantentzeak eragin zuzena dauka eurien, bereziki ekaitzen ondorengo sare hidrologikoaren hartze ahalmenean. Hazkundeak arraroak eta tamaina txikikoak izan ohi dira, uholde eta arrastaztea ez-ohikoak direlarik, fenomeno naturalak direneko beheko ibar batzuetan ezik. Iturri eta iturburuetako ur horniketa, ordea, erregularra da, oso ez-ohiko baldintzetan soilik huts eginez. Barakaldo bezala oso urbanizatuta dauden udalerrietan, urak nekazaritza eremuetatik igarotzean edo mendietan kanalizatzeak dinamika hori haustea dakar, eta pisten egintza desgokiak (drainatze txararengatik) ondore berdina sortzen du.

Suteen prebentzioa

Suteetarako arrisku naturala dagoen arren, nekazaritzako zerbait jarduerak prebenitzen edo hastekotan ondoreak gutxitzen lagun dezakete. Hartara, landare ez oso pirofitikoak erabiltzea da adibiderik garbiena (koniferak pirofitikoak dira). Bestalde, landare aniztasunak, bai belar bai zuhaitzenak, paisaia mosaiko zatietan islatuta, suaren aurrerako bidea geldiarazten du, erretze erritmo desberdinak dituztelako eta, horrela, aire korronte desberdinak sortzen direlako. Halaber, sua lanabes gisa erabiltzeak arrisku gutxiago dauka lur zatiak txikiagoak diren eta kudeaketan pertsona gehiago inplikaturik dauden tokietan. Azkenik, nekazari aktiboak edukitzeak esan nahi du, suterik izatekotan, erantzuna lasterragoa dela beti. Barakaldon sor daitezkeen sute batzuek, oro har, nekazaritzaren alorretik kanpo hasten dira, mutxikinak botatzeagatik, eta abar. Baina nekazaritzako alorrak berak, are gehiago baso alorrak, ekarpen handia egin dezake (garbiketara egokia, inaustea eta suaren erabilpena baso alorrean, suteen kudeaketa egokia nekazaritza eta abere hazkuntza alorrean).

Mantenugaiak birziklatzea

Ingurunean lurreko eta uretako mantenugaiak nekazaritza edo abere hazkuntzako "uzta" bihurtzeko prozesuan dauden mantenugai batzuen galera dakarren arren, nekazaritzak elementu ugari birziklatzen du, zuzenean zein zeharka lurrera itzuliz, eta nekazaritzako jardueren ondoriozko mantenugaiak abere hazkuntzan eta ganaduaren zaborra nekazaritzako lurren ongari gisa erabiliz. Uzten biratzeak ere espezie bakoitzak kopuru desberdinetan kontsumitzen dituen mantenugaiak konpentsatzen laguntzen du. Lur sail berean bi edo hiru kultibo desberdin sartzea ere maiz egiten da, lurraren substratu eta zati desberdinak aprobetxatuz: konbinazio klasikoa artoa, kalabazak eta indabak dira. Ustiapen bereko nekazaritza eta abere hazkuntzako orekak (zereala eta ganadua, edo ganadua gehi bazkarako kultiboak), ongari mineralen erabilpena gutxitzen laguntzen du, ondoriozko energia eta ingurumen aurrezpenekin (prestatzea, biltzea, garraiatzea). Nekazaritza "industrialak" dinamika horiek guztiak apurtzen ditu, abere hazkuntza nekazaritza bereiztean, uzta bakarrean espezializatzean, eta abar. Hala ere, Barakaldoko ustiapen oraindik ere mantenugaiak birziklatzea jotzen duten praktika batzuek ikus daitezke, bereziki baserriak ganadua eta landutako lurra dituenengan. Ganadua mendian libre ibiltzea da mendiak ongarrizatzeko modurik eragingarriena, betiere ganadua aurrera eta atzera badabil eta hektarea bakoitzeko abere gehiegirik ez badago.

Plaga eta gaixotasunak gutxitzea

Tradiziozko nekazaritzan berezkoa den aniztasuna gakoa da plaga eta gaixotasunei aurre egiteko orduan, hiru arrazoirengatik. Batetik, zerora inoiz gutxitzen ez den arren, gure lehiatzaileak izateak (intsektuak, arratoiak ...) bai mantentzen du kopurua baldintza normaletan onargarriak diren mugetan. Bigarren, lehiakide horien kopurua izugarri ugaltu eta uzta suntsitzen bada, nekazariak beti dauka, "plagari" konponbidea bilatzen dion bitartean, nondik bizi emango dioten beste uztarik. Eta, azkenik, tradiziozko nekazaritzak aniztasun genetikoa mantentzea funtsezkoa da gaixotasunei aldagai eta hibrido modernoetan aurre egiteko, erresistentzia desberdinak mantentzen dituelako eta aldagai modernoetan aurkitu ez den oinarri genetiko zabala dutelako. Filosofia modernoak, alegia, nekazaritza "industrialak" produktu kimikoen edo ingeniarietza genetikoen erabiliz plaga erabat suntsitzean oinarritzen da. Hala ere, naturaren bilakaerak eta dinamismoak tratamendu horiek xede diren intsektu eta landareak erresistentziak garatzera eramaten ditu, beraz, filosofia modernoak ez dauka zentzu handirik nekazaritzaren alorreko ingurumenaren sostenguaren terminoetan. Barakaldoko joerak beste tokietako joerak islatu dituzte: plagen eragina gutxitzeko teknika desberdinak erabiliz eta bitarteko produkzio egonkorak atereaz bizi zen tradiziozko nekazaritzatik, plagak ezabatzeke ahaleginean produkzioan gorabehera handiak jasaten dituen nekazaritza industrialera ... eta orain kimikoak ez diren eta ingeniarietza genetikokoak ez diren estrategiak erabiliz, plagarik izateko ahalbidea gutxitzen, baina intsektu bat ala beste ez suntsitzen, saiatzen diren nekazaritza ekologikoko teknikak erabiltzera.

Energia aurreztea

Ikaragarri zaila da nekazaritzako sistemen benetako koste energetikoa kalkulatzeko, kontuan izanik herrialde edo eskualde desberdinetan fase bakoitzean ezaugarri dituzten diru laguntza ageriko edo ezkutuko ugariak (produkzioan, paketatzean, garraioan, merkaturatzean). Baina oro har, eta batez ere berrigariak ez diren energiei dagokienez, nekazaritza anitz, osagarri eta merkatutik hurbil dagoenak monolaborantzakoa, bertikala eta merkatutik urrutit dagoen nekazaritzak baino koste energetiko txikia dakar. Mundu mailako nekazaritza/ingurumen erlazioan nekazaritza eredu bereizketa honek bigarren mailako inplikazio nabariak ditu. Elikagaien produktoreari zuzenean erosten dioten herritar kontsumitzaileek pake-tatu eta biltzeko lanetan ere energia aurrezten dute. Dena da energia. Hala ere, gainazal handietan erosteko joerak, eta Barakaldo inguruan gero eta gehiago

daude, elikagaien erosketa eta kontsumoko energia erabilpena nabarmen igotzen du. Kontserbatzaileak, gehigarriak, paketatzeak, denak energiata itzultzen dira, hipermerkatuetara joateko erabiltzen diren autoetan eta beste ibilgailuetan erabiltzen den gasolioa aipatu gabe.

Elikagai osasungarrien produkzioa

Egungo gizarteak gauza bakoitzaren itxurari baliorik goren aitortzen dion arren, elikagaiaren kalitatea gizakiari ematen dizkion mantenugaietan neurtu behar da, eta produkzio prozesuko hondakinei begira daukan purutasunean. Bi alderdi horiek azterlan ugariaren xede dira, nekazaritza sistema intentsiboetako galera orokorrenengatik. Hartara, produktu kimiko, gehigarri edo hormona gutxi, edo bat ere ez, erabiltzen dituen nekazaritzak kontsumitzaileari elikadura eta osasun kalitate handiagoa bermatzen dio. Barakaldoko nekazaritzak ez zion prozesu horri ihes egingo (dokumentu honen 2. atalean esana esanda ere), eta behi eroen, espinaketako nitratoen hondakinen, gibleko klenbuterolaren eta halakoen kasuak nekazarien sindikatuak eta kontsumitzaileen elkarteak elkarrekin beste elikadura produkzio mota bat erreklamatzera eraman dituzten adibideak.

Agro-ingurumeneko jakintza gehitzea

Nekazaritzaren tradiziozko kudeaketan, landare, toki, metodo eta erabilpen/errezeta ondo ezagutzen dira, eta jakintza hori galdu egiten da nekazaritzako politikaren ondoriozko areagotze, abandonatze eta ordezkatzeko prozesuekin, besteak beste. Esaterako, larreak “hobetzeko” politika, dagoen flora aniztasuna suntsitzea bi espezie sartzeko (bata ray-grassekoa eta bestea hirustarena), espezie naturalen gaineko jakintza galtzea dakarrena. Bestalde, barazki barietate zehatz bat landatzeari uztean, sukaldaritza eta gastronomiako bere erabilpenen jakintza gal daiteke, eta hori etorkizunean berreskuratzea oso zaila da. Joera tradiziozko nekazarien botanika, edafologia, fisiologia eta zoologiako jakintza enpirikoak (beraiek, jakina, ez

zieten halako izenik ematen beren ezagumenei), finantzaketa, diru laguntza eta abarren jakintzarenengatik aldatzekoa izan da. Pakete teknologikoek gero eta gehiago urruntzen dute nekazaria lurretik, eta bere produkzio prozesuaren gaineko kontrola galtzen du, Barakaldon zein beste edozein udalerritan. Pakete teknologikoak erabiltzen dituen eta finantzaketa merkatuak ezagutzen dituen nekazari “profesionala” definitzeko ahaleginek, alde batera uzten dute haziak gorde eta ernetzen, ganaduaren aurrerakoien hazkuntza egiten dakien, bere larretako landare desberdinen izenak ezagutzen dituen eta bestea bezain profesionala den nekazaria.

Hamarkadatan zehar nekazarien eta abeltzainen ezagumenei gero eta balio gutxiago eman zaien arren, alorrari garatzeko “analisi zientifikoak” eta konponbide “teknologikoak” eskainiz, duela gutxitik hona nekazarien jakintza balioa berreskuratzen hasi da, eguneroko eskarmentu agronomoak etorkizunean oro har eta, zehazki, ingurune naturalarekiko harremanen nekazaritzako jardueren mantentzeari eskaintzen diotenaren garrantzia aitortuz.

Ondorioak

- Barakaldoko nekazaritza oso urria da, argi eta garbi, biztanleria aktiboaren, lurraldeko gainazalaren eta haren gainean egiten diren presioen ikuspegietatik
- aukera gutxi dago lurraldearen aldetik Barakaldoko nekazaritza orekatzeko, izan ere, nekazaritzarako lurra lortzeko aukerak gutxituz jarraitzen dute.
- alorreko lurralde desorekek eragina dute ekar litzakeen ingurumeneko zerbitzu positiboetan.
- nekazaritzaren gainean kutsadura mota desberdinen eran egiten diren presioak produzitzen diren elikagaien kalitatea kolokan jartzen ari dira, izugarri.

Helen Groome
(EHNE)